


# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure taldea aukeratutako ideia xukadera ekologikoa da. Honetan garbitutako platerak, edalontziak, sardexkak... ipiniz gero, askatutako ura landare bat ureztatuko du, esfortzurik egin gabe! Modu honetan, ura aurrezten da eta normalean xahutzen den urari etekin bat ateratzen diogu.

Gure produktuari esker, ingurumena zaindu dezakezu, ur galerak aprobetxatu eta gehiegizko lana egin gabe landareak izan ditzakezu etxean.



Bereizgarri egiten gaituen kalitatea **erabilerreztasuna** (ez duzu ezer egin behar, platerak edo mahai-tresneria xukaderan jarri baino), **diseinu** inobagarria, moldagarria eta edozein sukaldarako aproposa, guztiz **personalizagarria** da hainbat kolore eta forma baitira, bai eta **merkea** ere, edozeinek eskura dezan.

Plater xukaderak ez ezik sardexka xukadaerak, edalontzi xukaderak.. egongo dira nahi duzuten forman eta koloreetan.

Laburbilduz, gure xukaderari esker, edozeinek (landarezaleak ez direnak ere) landare bat mantendu dezake esfortzurik egin gabe. Bere prezio eskuragarria edonork bere etxeetan edukitzeko ahalbidetzen du. Gainera, sukaldarako apainketa ezinobea da!